* La Sra. Peña (EAJ/PNV) se ratifica en que el reciclaje forma parte de la recogida selectiva y del tratamiento y que la incineradora es el final, lo último, y lo que hay que hacer. Comparte que hay que dimensionar bien las medidas de la incineradora, y también, ¿por que no?, dice esto según le viene a la cabeza escuchando al Sr. Alcalde, asumir el déficit que genere la incineradora. Al Sr. Collar (Errenteriako IrabaziZ) decirle que hasta hace dos días todos han estado en campaña electoral, pero le asegura que no sigue en modo de campaña electoral. Insiste por otra parte en que los datos los ha sacado de los que se le han facilitado por el Departamento de Hacienda, datos oficiales de este Ayuntamiento. En cuanto a la incineradora, no es conveniente hacerse trampas al solitario, cree que su Grupo es el que menos ha entrado a discutir las bonanzas o los demonios de la incineradora, pero lo que sí ha leído es el programa electoral de Podemos y no le cabe en la cabeza que con el “pollo” que había la legislatura pasada, que había anteriormente también y que también hay en esta, a la hora de confeccionar el programa de Podemos no haya sido algo reflexionado, meditado y querido. Al poner lo de la economía circular, residuo mínimo, reducción, reutilización, reciclado, valorización en la gestión de los residuos, repite “valorización en la gestión de los residuos”, esto, aunque no dicen incineradora porque

son más comedidos, pero esto es incineradora.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) erantzun du hori ez dela egia, balorizatzea ez dela erraustegia soilik, hondakinak bestela tratatuta ere lortzen dela balorizazioa. Gauzak bere lekuan jarri behar dira.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) responde que eso no es cierto, valorización no es solo incineradora, también se consigue valorización de otras formas de tratamiento de los residuos. Pónganse las cosas en su justa medida.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ) eta aurkako 10 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ) y 10 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

**ERABAKIA**

**ACUERDA**

**1.** Aurkeztutako Ordenantza fiskalen hurrengo aldaketa proposamenari, hasierako **onespena** ematea, eranskinean proposatzen den edukiarekin (espedientean jasota dago).

**1.- Aprobar** inicialmente la propuesta de modificación de las Ordenanzas fiscales que se detalla a continuación, con el contenido propuesto en el anexo que consta en el expediente:

**2.2.2. Zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzua.**

**2.2.2. Servicio de recogida y eliminación de residuos.**

**2. Akordioa jendaurrean jartzea** 30 lanegunez. Epe horretan erreklamazio zein iradokizunak egin ahal izango direlarik. Egoki den iragarkia Udalaren Iragarki Oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batean argitaratuko da.

**2.- Someter el acuerdo a información publica** por el plazo de 30 días hábiles, a efecto de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse. Se publicará el correspondiente anuncio en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, Boletín Oficial de Gipuzkoa, y al menos un diario de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**3.-** Ordenantzen aldaketa eta eranskinen inguruko erabakiak behin betikoak izango dira, eta beraz ez dute erabaki berririk beharko, baldin eta jendaurreko informazio-epea amaitu ondoren ez bada erreklamaziorik jaso.

**3.-** Los acuerdos adoptados sobre modificaciones de las Ordenanzas fiscales y sus anexos devendrán definitivos, sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**5. O.E. EHBILDUk eta Errenteria IrabaziZ taldeek aurkeztutako mozioa, "ACEX programetan murrizketarik ez" gaiari buruzkoa.**

Mozio hau irakurri dute:

"ACEX (Eskolaz Kanpoko ekintza osagarrien programa) duela 20 urte sortu zen lan-arazo batzuei irtenbidea bilatze aldera eta urteen poderioz bilakaera handia izan du, testuinguru ezberdinetara egokituz joan baita. Egun, Gipuzkoako ikastetxe publiko guztietan hedatuta dago eta eskolaz kanpoko ekintza andana ahalbidetzen ditu. Haien artean, liburutegi zerbitzua edota arlo artistikoarekin loturiko hainbat ekintza.

Eusko Jaurlaritzak programa hauek murriztea erabaki du lurralde autonomikoko hainbat eta hainbat ikastetxetan, beste behin, logika ekonomikoa unibertsala den hezkuntza eskubidearen aurretik kokatuz.

Erabaki honen ondorioak larriak dira:

- Behin behineko langile askori eragingo dieten lan-orduen murrizketa nabarmena dakar erabakiak.

- Haurren heziketa prozesuan atzerapauso nabarmena izango da. Programa hauek aukera ematen dute ikasleen beste ahalmen batzuk garatzeko; besteak beste hezkidetza, elkartasuna, sozializazioa, behar bereziak... Gure iritziz, hezte prozesua ez da mugatzen ikas-orduetara; ekintzok haurren aisialdian heziketa prozesua aberasten dute eta irakasleen lanaren osagarri dira.

**5. Moción presentada por los Grupos O.E. BILDU y Errenteriako IrabaziZ relativa a: "NO a los recortes en los programas ACEX".**

Leída la siguiente moción:

"El programa ACEX (Actividades Complementarias y Extraescolares) se creó hace 20 años para dar respuesta a unos problemas laborales, y con la evolución que ha tenido a lo largo de los años ha sabido adaptarse a diversos contextos. Actualmente, está implantado en todos los centros públicos de Gipuzkoa y posibilita que se realicen una gran cantidad de actividades extraescolares, entre las que se incluyen el servicio de biblioteca o diversas actividades relacionadas con el arte.

El Gobierno Vasco ha decidido recortar estos programas en muchos de los centros de la comunidad autónoma, anteponiendo una vez más la lógica económica al derecho universal a la educación.

Las consecuencias de esta decisión son graves:

- La reducción de horas de trabajo que genera afectará a muchos trabajadores eventuales

- Supondrá un gran paso atrás en el proceso educativo de niños y niñas. Estos programas ofrecen la posibilidad de desarrollar otras capacidades del alumnado como la coeducación, la solidaridad, la socialización, las necesidades especiales, etc. En nuestra opinión, el proceso educativo no se limita a las horas lectivas; estas actividades enriquecen el proceso educativo durante el tiempo de ocio y complementan la labor del



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

profesorado.

- Hezkuntza inklusiboaren printzipioa kolokan jartzen du. Programa hauek ikas-komunitateko eragile ezberdinen parte-hartzea eta elkarlana sustatzen dituzte eta doako eskaintza izanik, familia orok parte har dezake egoera ekonomikoa horretarako muga izan gabe. Integrazio eta sozializaziorako ezinbesteko espazioak dira, egoera soziokultural eta ekonomiko larrienetan bizi diren familia askorentzat gotorleku eta aukera izan daitezkeenak.

- Se pone en duda el principio de la educación inclusiva. Estos programas fomentan la participación y la colaboración de diversos agentes de la comunidad de la enseñanza y, al tratarse de una oferta gratuita, toda familia puede participar sin que la situación económica suponga ningún impedimento. Son espacios totalmente necesarios para la integración y la socialización que pueden ser la tabla de salvación o la oportunidad que necesitan muchas familias que viven graves situaciones socioculturales y económicas.

Hezkuntza komunitateko kidego zabal batek salatu du erabaki hau, sindikatu eta guraso elkarte ezberdinak tarteko. Errenteriaren kasuan, hiru ikastetxe publikoek ACEX programei esker garatu ahal izan dute, besteak beste, eskola-liburutegi zerbitzua, erabaki honek kolokan jartzen duena.

Gran parte de la comunidad educativa ha denunciado esta decisión, sindicatos y asociaciones de padres y madres incluidas. En el caso de Errenteria, tres centros han podido tener servicio de biblioteca escolar gracias a programas ACEX, servicios que se quedarán en la cuerda floja con esta decisión.

Gure iritziz, eskola liburutegien gisako egitasmoak desagerrarazteko atakan ezartzea onartezina da. Kulturari, ezagutzari, hizkuntzari edota identitatearen eraikuntzari ateak ixteak atzerapauso nabarmena dakar ikasleen garapen prozesuan eta ondorioz jendartearen eraikuntzan.

A nuestro parecer, es inadmisible poner en riesgo iniciativas como las bibliotecas escolares. Cerrar puertas a la cultura, al conocimiento, al idioma o a la construcción de la identidad es un gran paso atrás en el desarrollo del alumnado y, en consecuencia, en la propia construcción de la sociedad.

Murrizketa hau, baina, ezin dugu modu isolatuan ulertu. Azken urteotako Jaurlaritzaren jardunaren baitako eraso moduan baizik.

Sin embargo, no podemos entender esta reducción de manera aislada, sino como un ataque lanzado desde la línea de actuación que ha mostrado el Gobierno Vasco en los últimos años.

Hau guztia kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen diogu:

Por todo ello, instamos al Departamento de Educación del Gobierno Vasco a lo siguiente:

1. Ez dezala programa hau bere horretan ezabatu, murrizketa hauek sortzen dituzten azpi-kalteei

1. Que no elimine sin más este programa, sin tener en cuenta los daños colaterales que producen dichos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

erreparatu eta alternatibarik eskaini gabe.

2. Hezkuntza bere murrizketa politiketatik at utz dezala, oinarrizko eskubide unibertsala den heinean.

3. Hezkuntzari dagokion erabaki oro hezkuntza komunitatearekin eztabaidatu eta adostu ditzala.

4. Azkenik, babesa adierazi nahi diegu egoera berri honetara egokituz programa hauen biziraupena bermatu eta haurren hezte prozesua lehentasunez babestu nahian lanean dabiltzan hezkuntza komunitateko kide guztiei."

Hauek mintzatu dira:

* Lopez de Etxezarreta andreak (Orereta/Errenteria EHBIldu) adierazi du euskaraz txipa aldatu behar dutela gaia guztiz desberdina delako. Ekarri duten mozioa IrabaziZek eta EHBilduk sinatu dute, eta hitz egiten du ACEX izeneko programari buruz. Hezkuntza publikoaren baitan orain dela 20 urte programa berezi bat sortu zen eskolaz kanpoko ekintza osagarriak garatzeko, ibilbide luzea egin du, segur aski jatorrian sortutako motibazioa gaur egun ez dago indarrean, baina programak berak oso emaitza onak eman ditu eta garrantzitsua da oso jarraitzea. Errenteriara etorrita, beste gauza batzuen artean, batez ere bermatzen du hiru eskola publikoetan dauden liburutegiak eduki ahal izatea, ahalbidetzen du irakasleek ordu libre batzuk edukitzea liburutegiak irekita edukitzeko eta, hartara, eskoletako umeek badute liburutegi-zerbitzu hori eta hor egiten diren hainbat eskolaz kanpoko programazioz gozatzeko aukera. Eusko Jaurlaritzak, murrizketa-politika kezkagarri honen baitan, gero aipatuko ditu azken egunetan jakitera eman diren

recortes u ofrecer alguna alternativa.

2. Que deje la educación al margen de sus políticas de recortes, dado que se trata de un derecho universal.

3. Que toda decisión relacionada con la educación se adopte tras debatirlo y consensuarlo con la comunidad educativa.

4. Por último, queremos mostrar nuestro apoyo a toda persona de la comunidad educativa que trabaje para adaptarse a la nueva situación, para garantizar la supervivencia de estos programas y priorice el proceso educativo de niños y niñas."

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene la Sra. López de Echezarreta (Orereta/Errenteria EHBildu) manifestando en euskera que ahora tienen que cambiar el chip, el tema es totalmente diferente al anterior. La moción que presentan ha sido firmada por Errenteriako IrabaziZ y Orereta/Errenteria EHBildu y habla del programa denominado ACEX. Dentro de la educación pública, se creó hace 20 años un programa especial para desarrollar las actividades extraescolares. Ha tenido un largo recorrido, seguramente la motivación de los inicios no estará vigente hoy en día, pero el programa ha dado buenos resultados y es muy importante continuar. Viniendo a Errenteria concretamente, entre otras cosas, garantiza sobre todo la existencia de las bibliotecas que hay en nuestros tres centros públicos y permite que el profesorado tenga unas horas libres para tener abiertas las bibliotecas y que los niños de los colegios puedan acceder a ese servicio y gozar de numerosas actividades extraescolares que allí se pueden programar. El Gobierno Vasco, no saben si



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

hainbat murrizketa, baina hezkuntzaz ari garenean bereziki da larria murrizketa-politika bat edukitzea eta murrizketa garrantzitsuak adierazi ditu programa honi dagokionean. Eta berriro ere gure herrira etorriaz eta horrelako zerbitzuek Udalarekin elkarlanean Bizaraingo kasuan liburutegia herrira ere zabaltzeko aukera eskaini dute, eta nolabait momentu honetan proiektu hori eta elkarlan hori ere jokoan geratzen da. Egia da hiru eskola publikoak oso kezkatuta daudela murrizketa hauen ondorioz, eta nahi dute jarraitu zerbitzu horiek eskaintzen, baina ez dakite nola egin beharko duten. Mozio honek egiten duena da argi eta garbi Eusko Jaurlaritzari eskatu ez dezala horrelako murrizketarik egin eta, hau beste batzuetan ere hitz egin izan dute, murrizketarik ez, eta murrizketak egiten direnean esplikatu zergatik eta alternatibak jarri mahai gainean; baina ez besterik gabe kendu eta bilatu dezala soluzioa eskola bakoitzak. Baita ere oso kezkagarria da funtzionatzeko modua, egitea inondik inora eskola-kontseilu edo guraso-elkarte eta hezkuntza-komunitate osoko jendearekin hitz egin gabe. Beraiek hemen sartu duten salaketa hau bezalaxe, sindikatuek eta guraso-elkarteek ere egin dute salaketa, eta oso larria da inondik inora hezkuntza-komunitatearekin ez konpartitu izana asmo hauek eta agian birformulatu beste era batean. Hori da ekarri duten mozioa, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaiona da murrizketa hauek ez ditzala aplika.

dentro de esta política preocupante de recortes, luego comentará la cantidad de reducciones que se están dando a conocer estos días, pero tratándose de educación siempre es especialmente grave una política de reducción y han expresado recortes importantes correspondientes a este programa. Y viniendo de nuevo a nuestro pueblo, trabajando en estos servicios en equipo con el Ayuntamiento está el caso de Bizarain, que propone abrir la biblioteca a la ciudadanía en general y de alguna manera, ese proyecto y ese trabajo en común quedan en duda. Las tres escuelas públicas están preocupadas a consecuencia de estas reducciones, quieren seguir ofreciendo estos servicios, pero no saben cómo podrán hacerlo. Por ello, lo que esta moción hace es pedir claramente al Gobierno Vasco que no haga esos recortes y como se ha comentado en otras ocasiones, no a los recortes, y si se hacen recortes explicar el por qué y poner otras alternativas sobre la mesa, pero no quitarlas sin más y que cada uno busque su solución. Por otra parte, es también muy preocupante ese modo de funcionamiento, en este caso muy importante, sin hablar con el Consejo Escolar o con las asociaciones de padres y madres y la comunidad educativa en general. De la misma forma que ellos aquí están denunciando este hecho, también los sindicatos y las asociaciones de padres y madres lo han denunciado. Es muy grave que no se hayan compartido con la comunidad educativa estas intenciones y haberlas reformulado de otra manera. Esa es la moción que han traído y lo que se pide al Gobierno Vasco es que no aplique estos recortes.

* Franco jaunak (EAJ/PNV) adierazi du aurkeztutako mozioaren zenbait alderdiekin guztiz ados daudela, zehazki, 2, 3 eta 4. puntuekin, hezkuntza murrizketa-politikatik kanpo uztearekin, eskubide unibertsala baita. Bere taldea ados dago baita ere hezkuntzaren inguruko erabaki oro hartzeko hezkuntza-

* Interviene el Sr. Franco (EAJ/PNV) manifestando que hay aspectos que recoge la moción que se presenta con los que están totalmente de acuerdo. Concretamente los puntos 2, 3 y 4, como son el hecho de que se deje la educación al margen de sus políticas de recortes, dado que se trata de un



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

komunitatearekin eztabaidatu eta adostu behar dela. Eta nola ez, ados daude laugarren puntuarekin ere, esaten duena babesa adierazi nahi diegula egoera berri honetara egokituz programa hauen biziraupena bermatu eta haurren hezte-prozesua lehentasunez babestu nahian lanean dabiltzan hezkuntza komunitateko kide guztiei. Egungo testuinguruan soilik esan daiteke hezkuntzako legeriaren bilakaera, ikasleen artean irakurketa sustatzera bideratutako ekimen berriak, irakurketaren inguruko orientazioak abian jartzea, ikastetxeetara bideratutako programak, irakasleentzako prestakuntza-deialdien eskaintza, irakurketa-plana diseinatzeko prozesua abiatzea Euskadiko liburutegi publikoekin lankidetza eta ekimen berritzaileak sustatzea, horregatik beharrezkoa da berriz planteatzea irakurketa sustatzeko eta irakurtzeko gaitasuna garatzeko prozedura. Puntu horretan dago Eusko Jaurlaritzaren arlo horretako kudeaketa-taldea eta aztertzen ari da zer aukera dauden egungo egoera hobetzeko. Hartara, ezin du ados egon mozioaren ikuspegi negatiboarekin.

derecho universal. También su Grupo está de acuerdo con que toda decisión relacionada con la educación se adopte tras debatirlo y consensuarlo con la comunidad educativa. Y también, como no, están de acuerdo con el punto cuarto que dice, queremos mostrar nuestro apoyo a toda persona de la comunidad educativa que trabaje para adaptarse a la nueva situación, para garantizar la supervivencia de estos programas y priorice el proceso educativo de niños y niñas. Unicamente que en el contexto actual pueden decir que la evolución de la legislación educativa, las nuevas iniciativas dirigidas a fomentar la lectura en el alumnado, la puesta en marcha de orientaciones en torno a la lectura, los diversos programas destinados a los centros educativos, la oferta de convocatorias de formación del profesorado, el inicio del proceso de diseño del plan lector en cooperación con las bibliotecas públicas de Euskadi y el impulso de iniciativas innovadoras, hace necesario repensar el procedimiento para la promoción de la lectura y para el desarrollo de la competencia lectora. En ese estadio se encuentra el equipo gestor del área del Gobierno Vasco y lo que se está haciendo es estudiar las alternativas que vayan dirigidas a mejorar la situación actual. Por tanto, con el enfoque negativo que contiene la moción, no pueden estar de acuerdo.

* Collar jaunak (Errenteriako IrabaziZ) adierazi du ACEX programa, eskolaz kanpoko jarduera osagarriena, duela 20 urte sortu zela lan-arazo bati erantzuteko, erantzuna emateko bere garaian hizkuntza-eskakizunik ez zuten irakasleei; horretarako sortu ziren programa hau eta jangeletako kudeatzaileen plazak; programa hau egokitzen joan da ezarri zenetik. Gaur egun Gipuzkoako ikastetxe publiko guztietan ezarrita dago eta aukera ematen du eskolaz kanpoko jarduera ugari egiteko, besteak beste, liburutegi-zerbitzua eta artearen inguruko

* Interviene el Sr. Collar (Errenteriako IrabaziZ) manifestando que el programa ACEX, Actividades Complementarias Extraescolares, se creó hace 20 años para dar respuesta a uno de los problemas laborales, para dar solución a los docentes que en su día no tenían adquirido el perfil lingüístico, creando este programa y plazas de gestores de comedores, un programa que ha ido adaptándose en su implantación. Actualmente está implantado en todos los centros públicos de Gipuzkoa y posibilita que se realicen una gran cantidad de actividades



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

hainbat jarduera. Gure udalerriari dagokionez, BILDUko bozeramaileak esan duen moduan, hiru ikastetxek eskola-liburutegiko zerbitzua doan izan dute programa hauei esker, eta zerbitzu horiek zintzilik geratuko lirateke Eusko Jaurlaritzak programa horiek kentzeko hartutako erabakiarekin. Bistakoa denez, erabaki hori hartzeko lehentasuna eman zitzaion logika ekonomiko bati, hezkuntzarako eskubide unibertsalari baino. Gure ustez murrizketa horiek atzerapauso larria dira euskal hezkuntza publikoko inbertsioetan. Oinarrizko galdera batzuk etorri zaizkio burura murrizketa hauekin, zergatik kendu ondo ezarrita dauden eta maila guztietan egokitzat jo diren programak? edo, beste galdera bat, haur batek eskola-ordutegitik kanpo doan kulturarako sarbidea izatea pribilegioa al da? Galdera horien inguruan hainbat hausnarketa etorri zaizkio. Eusko Jaurlaritzak, EAJ buru dela, ez du prozesu hau garden kudeatu eta are gutxiago kontsultatu hezkuntza-komunitateko eragileekin edo irakasle, sindikatu edo guraso-elkarteekin. Iruditzen zaigu euskal hezkuntza publikoko murrizketa honek zuzenean eragiten diola hezkuntzarako eskubide unibertsalari, baliabide gutxien duten familiek jasango baitute eraginik handiena zuzenean, eta beren seme-alabek murriztuta ikusiko baitituzte beren prestakuntza osatzeko doako hezkuntza eta kulturarako sarbidearen oinarrizko printzipioak. Behar gehien dutenek merezi al dute zigor hori? hezkuntza eta kultura ez dira pribilegioa, eskubidea baizik. Errenteria IrabaziZek euskal eskola publikoa eta gizarte justuago, solidarioago eta berdintasunezkoagoa defendatzen du, eta iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzaren murrizketa honek zuzenean eraso egin diela gure eskubideei, bereziki haurren eskubideei, eta horiexek dira izan nahi dugun gizartearen etorkizuna. Horregatik, eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari mozioan aipatutako lau puntuak

extraescolares, entre las que se incluyen el servicio de biblioteca o diversas actividades relacionadas con el arte. En el caso de nuestro municipio, como bien ha dicho la Portavoz de BILDU, tres centros han podido tener servicio de biblioteca escolar gracias a estos programas, servicios que quedarán pendientes de un hilo con esta decisión del Gobierno Vasco de recortar estos programas. Evidentemente, decisión tomada anteponiendo una vez más la lógica económica al derecho universal de la educación. Estos recortes los entendemos como un grave retroceso en las inversiones a la educación pública vasca. Ciertas preguntas básicas nos vienen a la cabeza con estos recortes, ¿por qué suprimimos programas que están bien implantados y que han demostrado dar satisfacciones a todos los niveles?, u otra pregunta, que un niño/niña pueda tener acceso a la cultura de forma gratuita fuera del horario lectivo en su propio centro, ¿es acaso un privilegio?. En respuesta a estas preguntas les vienen varias reflexiones, la gestión de este proceso por parte del Gobierno Vasco, gobierno del PNV, no ha sido transparente y mucho menos se ha consultado a diferentes agentes de la comunidad educativa, ni al profesorado, ni a los sindicatos, ni a las asociaciones de padres y madres. Entendemos este recorte en la educación pública vasca como un ataque directo al derecho universal de la educación, donde las familias con menos poder adquisitivo serán directamente las más afectadas y sus hijos e hijas verán recortados sus principios básicos de acceso a la educación y cultura gratuitos para complementar su formación. ¿Acaso los que más necesidad tienen merecen tal castigo?, la educación, la cultura y el acceso a ella no es un privilegio sino un derecho. Errenteria IrabaziZ en su defensa de la escuela pública vasca y por defender una sociedad más justa, solidaria e igualitaria, entendemos este recorte del Gobierno

betetzeko.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du aurtengo maiatzaren 30ean talde sozialistak Eusko Legebiltzarraren mahaian aurkeztu zuela legez besteko proposamen bat Hezkuntzako Batzordean eztabaida zezaten, eta honela justifikatzen zuten (gaztelaniaz): “Numerosos centros del País Vasco nos han hecho llegar su inquietud en relación con el cierre de más de 90 programas ACEX, la mayoría de ellos del ámbito de las bibliotecas escolares. Las directrices que el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco impulsa y va a ejecutar para el próximo curso 2016-2017 pretenden eliminar el programa en aquellos centros que tienen docentes dedicados a la biblioteca escolar a media jornada, coincidiendo con el 20 aniversario de este Programa. La aplicación de tales directrices está inspirada meramente en criterios de recortes económicos y no viene avalada por ninguna justificación pedagógica. Los programas ACEX buscan el fomento de las distintas competencias educativas compartiendo la misma responsabilidad que el resto del profesorado, en un nivel complementario a la labor que aquellos ejercen. Por otra parte, desde la tarea extraescolar, buscan además dotar de sentido el ocio del alumnado otorgando la posibilidad de realizar actividades creativas, lúdicas, escolares, que además, quieren servir de puente de participación y colaboración con toda la comunidad educativa. Estos programas llevan ofreciendo desde hace 20 años la posibilidad de acudir a la biblioteca, a leer cuentos, a hacer deberes, a organizar juegos. Asimismo permiten

Vasco como un ataque directo sobre nuestros derechos y especialmente al de los niños y las niñas, las cuales son el futuro de la sociedad que deseamos, por ello instamos al Gobierno Vasco a los cuatro puntos que tenemos en la moción.

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que el día 30 de mayo de este año el grupo socialista trasladaba a la mesa del Parlamento Vasco una Proposición no de Ley para su debate en la Comisión de Educación y lo justificaban de la siguiente forma: “Numerosos centros del País Vasco nos han hecho llegar su inquietud en relación con el cierre de más de 90 programas ACEX, la mayoría de ellos del ámbito de las bibliotecas escolares. Las directrices que el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco impulsa y va a ejecutar para el próximo curso 2016-2017 pretenden eliminar el programa en aquellos centros que tienen docentes dedicados a la biblioteca escolar a media jornada, coincidiendo con el 20 aniversario de este Programa. La aplicación de tales directrices está inspirada meramente en criterios de recortes económicos y no viene avalada por ninguna justificación pedagógica. Los programas ACEX buscan el fomento de las distintas competencias educativas compartiendo la misma responsabilidad que el resto del profesorado, en un nivel complementario a la labor que aquellos ejercen. Por otra parte, desde la tarea extraescolar, buscan además dotar de sentido el ocio del alumnado otorgando la posibilidad de realizar actividades creativas, lúdicas, escolares, que además, quieren servir de puente de participación y colaboración con toda la comunidad educativa. Estos programas llevan ofreciendo desde hace 20 años la posibilidad de acudir a la biblioteca, a leer cuentos, a hacer deberes, a organizar juegos. Asimismo permiten



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

realizar competiciones deportivas, actividades plásticas y creativas, así como realizar actividades relacionadas con las nuevas tecnologías y el conocimiento del entorno próximo. Estas actividades gratuitas, realizan una importante labor compensatoria de desigualdades sociales puesto que

ningún niño o niña queda excluido de ellas por razones económicas. El cierre de más de 90 bibliotecas escolares supone el abandono de decenas de miles de libros adquiridos y catalogados e infinidad de jornadas invertidas en su gestión. Es un derroche del gasto público en fondos bibliográficos y audiovisuales que pasará a estado almacén definitivo. Genera el detrimento de la calidad de enseñanza. Se les priva a las familias, cada vez más empobrecidas, del servicio de préstamo de libros. Y conlleva la merma en los puestos de trabajo con especial perjuicio para el colectivo de interinos. Ante el eventual cierre de los programas ACEX, Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY para su debate en Comisión de Educación: El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que mantenga los programas ACEX gestionados por docentes especializados en los centros escolares del País Vasco, habida cuenta de la función educativa, social y cultural que tales programas ejercen en el sistema educativo vasco". Jarrera hori eta mahai gainean dagoen mozioa ikusita, bere taldeak mozioaren alde bozkatuko du.

* Lopez de Echezarreta (Orereta/Errenteria EHBildu) euskaraz adierazi du harridura azaldu nahi duela Franco jaunaren (EAJ/PNV) hitzen inguruan, esan duelako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila hausnarketa egiten ari dela, eta zeharo beharrezkoa izango da, baina hausnarketa-momentuan zer egin du? kendu. Ez dago soluziorik, ez dakigu zein izan

realizar competiciones deportivas, actividades plásticas y creativas, así como realizar actividades relacionadas con las nuevas tecnologías y el conocimiento del entorno próximo. Estas actividades gratuitas, realizan una importante labor compensatoria de desigualdades sociales puesto que

ningún niño o niña queda excluido de ellas por razones económicas. El cierre de más de 90 bibliotecas escolares supone el abandono de decenas de miles de libros adquiridos y catalogados e infinidad de jornadas invertidas en su gestión. Es un derroche del gasto público en fondos bibliográficos y audiovisuales que pasará a estado almacén definitivo. Genera el detrimento de la calidad de enseñanza. Se les priva a las familias, cada vez más empobrecidas, del servicio de préstamo de libros. Y conlleva la merma en los puestos de trabajo con especial perjuicio para el colectivo de interinos. Ante el eventual cierre de los programas ACEX, Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY para su debate en Comisión de Educación: El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que mantenga los programas ACEX gestionados por docentes especializados en los centros escolares del País Vasco, habida cuenta de la función educativa, social y cultural que tales programas ejercen en el sistema educativo vasco". Visto este posicionamiento y la moción que está sobre la mesa, su Grupo votará a favor de la misma.

* La Sra. López de Echezarreta (Orereta/Errenteria EHBildu) señala en euskera que quiere mostrar su sorpresa ante las palabras del Sr. Franco (EAJ/PNV). Habla de reflexión en el Gobierno Vasco, pero ¿qué hace en el momento de la reflexión?, quitar. No tiene soluciones, no sabemos cuál puede ser el nuevo planteamiento más adecuado, pero de momento lo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

daitekeen planteamendu berri egokiagoa, baina oraingoz, murrizketa aplikatu, eta hausnartu, legegintzaldi baten bukaeran, alegia, hausnartzen bukatuko da legegintzaldia, ikusiko da gero zer gertatzen den. Harrigarria eta kezkagarria iruditzen zaio gaur Berriak argitaratu duelako Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 350.000 € ez dituela emango eta EAEn egiten diren jaialdi eta ziklo desberdinei ez diela diru-laguntzarik emango. Eta Joxean Muñozen adierazpenak azaltzen dira, damua aipatu du, eta ikaragarria iruditzen zaio damua aitortu izana horregatik Joxean Muñozek. Eta hemen ere berdina, *"hausnartzen ari gara, diru gehiago nahi genuen lerro desberdinak egiteko, beraz, ez dugu emango"*. Hori bada legegintzaldi baten bukaeran EAJren gobernu batek planteatzen duena, programa eta aldaketa eta hausnarketa, legegintzaldi berriaren aurrean, *"legegintzaldia amaitzera doa, hausnartzen ari gara, baina nik murrizketak aplikatuko ditut",* oso kezkagarria iruditzen zaio. Egia da ACEX programarena larria dela baina orokorrean jakin dute ez dagoela batere argi Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zer jarrera izango duen Madriletik datozen murrizketa gehiagorekin lan-orduen inguruan eta hezkuntzan. Horregatik uste du hor oraindik ere arazo potoloagoa dutela, ari dira hitz egiten agian hezkuntza publikoan eta kontzertatuan 3.000 bat lanpostu suntsitu daitezkeela, ELAk datu horiek eman ditu, ikusi beharko da. Hartara, seriotasun pixka bat eskatuko luke eta eskatuko lioke, adibidez, PSOEri bere paktuak egiten dituenean EAJrekin, gutxienez, hezkuntza eta osasun mailan murrizketarik ez aplikatzeko, hori izatea lerro gorria, *"guk hau orain ez dugu onartzen",* baina gero babesten dute murrizketa horiek egiteko aukera ematen dien aurrekontua. Hartara, koherenteak izan gaitezen, eta saia gaitezen gure paktuetan horrelako murrizketak blindatzen. Oso kezkagarria iruditzen ari zaio hezkuntzan momentu

que hace es aplicar los recortes y reflexionar. Recortar y reflexionar al final de una legislatura, esto es, finalizará la legislatura reflexionando y ya se verá lo que ocurre luego. Le parece preocupante, porque hoy han conocido la noticia que ha publicado Berria, de que el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco no va a dar la subvención de 350.000 euros a los distintos ciclos de festivales que se celebran en la Comunidad Autónoma Vasca. Se publican las manifestaciones de Joxean Muñoz en las que muestra arrepentimiento, y bueno, le parece terrible que Joxean Muñoz haya mostrado arrepentimiento por esto. Y aquí pasa igual, *"estamos reflexionando, queremos más dinero porque queremos crear nuevas líneas, por tanto, no damos dinero"*. Si ese es el planteamiento del Gobierno del PNV al final de una legislatura, ante un programa, un cambio y una nueva reflexión, *"finaliza la legislatura, estamos reflexionando, pero yo aplico recortes"*, le parece preocupante, muy preocupante. Es cierto que lo de los programas ACEX es grave, pero han sabido además que no está clara la postura del Departamento de Educación del Gobierno Vasco sobre el aumento de los recortes de Madrid ante la reducción en educación de horas de trabajo, etc.,. Piensa que ahí tienen un problema todavía mayor, están hablando de que quizás en la educación pública y concertada se pueden destruir tres mil puestos de trabajo, estos son datos aportados por ELA que habría que ver. Por tanto, pediría un poco de seriedad al PSE cuando hace sus pactos con el PNV, para que al menos en educación y en salud no se apliquen reducciones, que pongan ahí la línea roja, porque dicen, *"nosotros no admitimos esto ahora"*, pero luego apoyan el presupuesto que garantiza y da opción a esas reducciones. Por tanto, seamos coherentes e intentemos blindar por nuestra parte esos recortes. Le parece muy preocupante lo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

honetan gertatzen ari dena, eta gainera legegintzaldi baten amaieran, agian berriro PP egongo da gobernuan Madrilen, agian LOMCEk bere bidea egiten jarraituko du, beraz, zer eskainiko dio baldin eta EAJren botoak ere hor badaude jokoan? sartuko da hezkuntzaren arloan ere beste zerbait planteatzera edo ez? Eta, zalantzarik gabe, honek agerian uzten du berriro ere guk gure bidea egin behar dugula eta gure hezkuntza-sistema propioa behar dugula, ezin dugula horrela aritu.

que está ocurriendo en educación en este momento, final de una legislatura, quizás el PP de nuevo en el Gobierno de Madrid, igual la LOMCE sigue su camino, y por tanto, ¿qué le ofrecerá si están ahí en juego los votos del PNV?, ¿se meterán a plantear algo nuevo en educación o no?. Y sin duda, esto deja de nuevo al descubierto que aquí debemos hacer nuestro camino y que necesitamos nuestro propio sistema educativo, porque no se puede andar así.

Amatu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ) eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 18 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ) y 3 abstenciones (EAJ/PNV)

**E R A B A K I A**

**A C U E R D A**

Onartzea O.E. BILDU eta Errenteriako IrabaziZ taldeek aurkeztutako mozioa, “ACEX programetan murrizketarik ez” gaiari buruzkoa (azalpen-zatian jasota dago).

Aprobar la moción presentada por los Grupos O.E. BILDU y Errenteriako IrabaziZ relativa a: "NO a los recortes en los programas ACEX", que consta en la parte expositiva del presente asunto.

**6. LGTBen harrotasunaren nazioarteko egunari buruzko mozioa.**

**6. Moción en relación al Día Internacional del Orgullo LGBT.**

Idazkari nagusiak mozio hau irakurri du:

Leída por la Secretaria Gral. la siguiente moción:

**"Aniztasun eta identitate sexualen aldeko erakunde adierazpena**

**"Declaración institucional en favor de la diversidad y la identidad sexual**

Ekainaren 28an mundu osoko kaleak, baita gureak ere, kolorez eta aldarrikapenez jantzi ohi dira LGTBI kolektiboaren hamarkadatako borroka nabarmentzeko. 2016. urtean 47 urte beteko dira Stonewalleko (New York) matxinadatik. Egun hau

Todos los 28 de junio, las calles del mundo entero, y también las nuestras, se visten de color y reivindicación, una vez más, para visibilizar la lucha de décadas del colectivo LGTBI. En 2016 se cumplen 47 años de la revuelta de Stonewall (Nueva York). Se



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

askatasun sexualaren mugimenduaren baitan berezia da oso, erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen, trans eta intersexualen aurka ezarritako errepresioaren kontra egiteko mugarri izan baitzen.

Orduko mobilizazioek sexu askatasunaren aldeko antolakuntza bultzatu eta lanerako indarra eman bazuten ere, 47 urte geroago diskriminazio egoerak ez dira amaitu. Are gehiago, zenbait kasutan bestelako diskriminazio egoerekin batu dira eta baztertze egoera larrietan utzi ditu lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualak.

Besteak beste, honelako kasuak bizi ditugu egun gurean: inmigrante ez heterosexualak; pobrezian bizi diren emakume lesbianak; beltzak eta transexualak direnak; familia nuklearrean oinarritutako bizi ereduekin bat egiten ez duten pertsonak; generorik gabeko identitateak dituztenak; etab. Arrazoi ezberdinengatik dira diskriminatuak pertsona hauek: arrazoi sozioekonomikoengatik eta baita genero arrazoiengatik ere. Izan ere, gurean oraindik ere homofobia, lesbofobia eta transfobiaren erasoak egunerokoak dira.

Azkenengo homofobia erasorik bortitzena pasa den ekainaren 11an bizi izan genuen Orlandon. Erasotzaile bakarra izan bada ere, gizarte eredu oso baten arazoa da honako kasua, homofobia erasoak esparru guztietan bizi bait ditugu. Izan ere, Orlandon ia 50 hildako izan dira, baina nazioartean egunerokoan bizi ditugu eraso homofoboak; gizarteko esparru ezberdinetatik zein legedia kriminalizatzaileetatik.

trata de un día muy especial dentro del movimiento de liberación sexual, que supuso un antes y un después en la lucha contra la represión ejercida por las instituciones políticas, policiales y religiosas contra lesbianas, gays, bisexuales, transexuales e intersexuales.

A pesar de que las movilizaciones de entonces impulsaron la organización en favor de la libertad sexual y supusieron un fortalecimiento para seguir trabajando, 47 años después las situaciones de discriminación no han terminado aún. Es más, en algunos casos se han unido a otras situaciones de discriminación, dejando en grave situación de exclusión a lesbianas, gays, bisexuales, transexuales, transgéneros e intersexuales.

Vivimos casos de todo tipo en nuestro país, reflejo de la actual situación: inmigrantes no heterosexuales; mujeres lesbianas que viven en la pobreza; personas negras y transexuales; personas que no se integran en el modelo de vida basado en la familia nuclear; personas con identidades que carecen de género, etc. Todas estas personas son discriminadas por diferentes razones, tanto socioeconómicas como de género. De hecho, los ataques por homofobia, lesbofobia y transfobia continúan siendo aún algo habitual en nuestro país.

El pasado 11 de junio, conocimos la última expresión de la violencia homófoba, que se saldó con 49 muertos en Orlando. Aunque fuera perpetrado por un solo agresor, el problema reside en toda una sociedad en la que sufrimos constantemente la homofobia, expresada con diferentes caras. Aunque en Orlando hayan sido asesinadas casi 50 personas, en el marco internacional seguimos padeciendo las consecuencias de la lacra de la homofobia, viniendo esta de la sociedad, así como de las instituciones.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Horrexegatik, elkartasuna ardatz izango duen kontzientzia aldarrikatzen dugu, jarrerak aldarazi eta LGBT kolektiboarekiko aurreiritziak, fobiak eta gorrotoak desagerraraziko dituena, alor guztietan ezinbestekoak diren lege eta gizarte aldaketak eginda: hezkuntzan, osasungintzan, komunikabideetan edota herritar askatasunetan. Horretarako ezinbestekoa izango da ahalduntze politikak bultzatzeta gizarteko sektore ezberdinetan.

Por eso queremos reivindicar una conciencia basada en la solidaridad, que permita modificar las actitudes y eliminar los prejuicios, las fobias y los odios hacia el colectivo LGTBI, llevando a cabo las reformas sociales y legales imprescindibles en todos los ámbitos: en la educación, en la salud, en los medios de comunicación o en las libertades ciudadanas. Para eso, será imprescindible impulsar políticas de empoderamiento en diversos sectores sociales.

Guzti honengatik, politika instituzionalak pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesteko norabidean joan behar dira, oinarrizko askatasun printzipioaren baitan.

Por todo ello, las políticas institucionales deben ir encaminadas a proteger los derechos políticos, ideológicos y civiles de las personas lesbianas, gays, transexuales, bisexuales e intersexuales, como parte del derecho básico a la libertad.

Era berean, hauen aurkako eraso, jazarpen edota errepresio oro gaitzetsi eta salatzeko jarrera izan behar du, eta horrelakoak errepika ez daitezen, bere eskura dituen baliabide guztiak erabili beharko lituzke, prebentziorako, detekziorako, asistentziarako eta laguntzarako protokolo baten lanketa egiteko.

Asimismo, dicha política debe mantener una actitud de condena y denuncia contra todos esos ataques, acosos o actos represivos, utilizando todos los recursos a su alcance para que hechos así no se repitan, a fin de elaborar un protocolo de prevención, detección, asistencia y ayuda.

Pertsona askeek osatutako herri askea eraikitze bidean, herri eta hiri desberdinetan antolatutako mobilizazioekin bat egitera deitzen du Errenteriako Udalak."

En la vía de la construcción de un pueblo libre compuesto por personas libres, El Ayuntamiento de Errenteria llama a apoyar las movilizaciones que se organizarán en los diferentes pueblos y ciudades de nuestro país."

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/ Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV),

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

Onartzea LGBTen harrotasunaren nazioarteko egunari buruzko Erakunde Adierazpena (azalpen-zatian jasota dago).

Aprobar la Declaración Institucional en relación al Día Internacional del Orgullo LGBT, que consta en la parte expositiva del presente asunto.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**7. Galdera-eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaririk egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:00 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

**7. Ruegos y Preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net